

BERDINTASUN PLANA

HEZKUNTZA PARTEKATUA

Hezkuntza Arloan, gaur egungo Berdintasun Planean jasotakoari eta genero-*mainstreaming*aren ardatz estrategikoari jarraiki, "Eraldatzen" izeneko hezkuntza-programa garatzen aritu gara azken lau urteotan. Programa horren helburua izan da hezkuntza partekatua sustatzea eta indarkeria sexista ekiditea gazteenen artean, udalerriko ikastetxeetako DBHko ikasleen artean alegia.

"Eraldatzen"-en bidez, *bullynga*, autoestimua, sexu/genero sistema, maitasun-eredu ezberdinak eta indarkeria sexista bezalako gaiak landu dira. Hori guztia ikasleen partaidetza kritikoa eta aktiboa bilatzen duen metodologia oinarri gisa hartuta. Egitaraua osatzeko, sexismorik gabeko *gincana* egin zen Lehenengo Hezkuntzako ikasleekin.

Lan horrekin lortutako emaitza onak izan direnez, 2012 honetan "Eraldatzen" programari eta *gincanari* jarraipena eman nahi izan diegu. Horrela, Gueñes udalerriko ikasleek berdintasunaren eta indarkeriaren gaitzespenaren printzipioetan oinarritutako hezkuntza jaso ahal izango dute.